

4. TXOSTENA

EAJ-PNV, BERE HERRIAREN ZERBITZURA

DAGOEN ALDERDIA:

EUSKAL HERRITARREKIKO LOTURAK

AURKIBIDEA

1	HITZAURREA	3
2	TXOSTENAREN HELBURUAK	4
2.1	<u>Alderdi hau sortu zenetik euskal gizarteak Euzko Alderdi Jeltzalean izan duen konfiantza berritzea eta sendotzea</u>	<u>4</u>
2.2	<u>Alderdi politiko humanista eta transbertsal gisa gure zentralitatea berreskuratzea, alderdi sozialean, ekonomian eta belaunaldien artean, euskal herriaren baitan eta euskal nortasunari dagokionez, eta, horrela, Euskadiren aurrerapenari laguntzea komunitate baketsu, anitz, erresiliente, kohesionatu, ekologista eta feminista gisa.</u>	<u>5</u>
3	TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AURREKARIAK	6
4	EGUNGO EGOERA	8
5	ESTRATEGIAK OINARRI DITUEN PRINTZPIO ETA OINARRIAK	11
5.1	<u>Balore etikoak, argiak eta gaur egungoak</u>	<u>11</u>
5.2	<u>Berrikuntza politikoa</u>	<u>12</u>
5.3	<u>Aldaketa sozialetara moldatzea</u>	<u>12</u>
5.4	<u>Gizartearekiko harremanak eta komunikazioa</u>	<u>13</u>
6	EAJ-PNVK JARRAITU BEHARREKO HELBURUAK ETA JARDUERA ESTRATEGIAK ZEHATZTEA	14
6.1	<u>Balore etikoak, argiak eta egungoak</u>	<u>14</u>
6.2	<u>Berrikuntza politikoa</u>	<u>16</u>
6.3	<u>Gizartearen aldaketetara moldatzea.....</u>	<u>18</u>
6.4	<u>Harremanak eta komunikazioa</u>	<u>20</u>
7	ONDORIOAK	23

1 HITZAURREA

Bada arinkerien aurrean irmotasuna erakusteko garaia. Alderdi sendoa gara, balore irmoek gidatzen dute gure ibilbidea eta gure zeregina. Euskal Herriarekin harreman sendoak dituen alderdia gara, gizabanako zintzo eta prestatuek eratua. Kideok gizartean integratuta gaude eta bere aurrerapenarekin hitzemand gaude.

Sentimenduak ditugu oinarri, sentipenak ; ziur aski geure buruarekin zorrotzak izango gara. Txosten honen edukia ikusterakoan, "etsipena", "frustrazioa", "aldaketa", "belaunaldia", "balioak", "enpatia" eta "komunitatea" hitzak azaleratzen dira. Hitz guztiak ez dira sentimenduak, baina denek sentiarazten dute zerbait.

Txosten honen bidez saiatu gara geure burua aztertzen, testuinguruan kokatzen, diagnostiko bat egiten eta irtenbideak proposatzen. EAJ-PNVk gizartean eta gizartearekin duen harremana berriz ebaluatu beharra. EAJ-PNVren erronketako bat da, eta hori ere bada txosten honen gai nagusia, gizarte berri, heldu eta arras emozionala den honekin bat egitea. Errealitate hori ulertzea eta mezua leku horretan kokatzea dagokigu, haztea.

Trantsizio ekologiko, digital, sozio-ekonomiko eta demografikoek gizartea irauli dute maila globalean, eta, jakina, baita euskal gizartea ere. Pandemiak mugarri bat ezarri zuen erakunde lehentasunak eraldatuz eta ziurgabetasun garaietan erresilientzia eta moldagarritasuna eraikitzearen garrantzia azpimarratuz. Gainera, gizartearen balioei herritarren lehentasunei eta bizitzeko moduari eragin zien. Paradigma aldaketa bat ematen ari da.

Paradigma aldaketa horrekin batera galera nabarmena ezagutu du euskal kulturaren, balioen eta hizkuntzaren garrantziak. Alderdi euskalduna eta abertzalea izanik, ezinbestekoa da gai horien defentsa irmoa egitea. Balore horietan uste osoa dugulako eta gure herriaren oinarria direlako.

Lidergoak, boterearen kudeaketa, herritarrekiko harremana, transmititzen diren mezuak, denboraren kudeaketa, aisialdia, erantzukidetasuna, kontziliazioa, sororitatea, etab. Kontzeptu horiek guztiak ia berriak dira gizartean, eta gizartea gidatzen duenak, kudeatu nahi duenak, balore horiek errespetatu eta ulertu beharko ditu eta enpatizatzen jakin. Izan ere, hau da komunitatearekiko harremana: arazoaren aurrean hurbiltasuna erakustea, zerbitzu ematea eta ekimena izatea eta erantzunetan ziurtasuna eskaintzea; kontzeptu berriak entzutea eta ulertzea, ikastea eta barneratzea.

Gizartea aldatzen ari da, herritarren interesak aldatzen ari diren erritmo berean. Aldaketa horiek ez dute justifikatzen eta ezin dute justifikatu EAJ-PNVk euskal gizartean duen posizionamenduan atzera egitea. Bilakaera horren ondorioz, gure estrategiei buruz hausnartu eta ebaluatu behar dugu: egoera berroneratzea eta eraldatzea dagokigu.

Txosten honen helburu nagusia da Alderdiak erakunde mailan eta burutzan dituen harremanak berroneratzea, bai eta alderdikideen jardun politikoaren aldetik, gizartean eta hiritargoarekin (gizarte antolatuan eta gizabanakoekin), komunitatea bera eta bere baloreak indartz: balore etikoak, gaur egungoak.

EAJ-PNVren aldetik gai izan behar dugu gizarte honek planteatzen dizkigun erronka horiei erantzuteko, euskal herritarren itxaropenei behar bezala erantzuteko orduan dagokigun erantzukizuna aintzat hartuz eta onartuz, herritarrekin enpatiatik, sendotasunetik eta balioetatik konektatuz eta alderdiaren eta herritarren arteko elkarrenganako konfiantza bultzatuko duten politika berritzaileak proposatuz. Apaltasunez eta erabakitasez, iraganean egin dugun bezala, ez bakarrik oraingo beharrei erantzuteko, baita etorkizuna eraikitze ere. Gure

proiektua asmo handikoa da, ilusioa pizten du, gizarte bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa, solidarioagoa, toleranteagoa, errespetuzkoagoa, abegikorragoa eta inklusiboagoa eraikitzea du helburu.

2 TXOSTENAREN HELBURUAK

2.1 Alderdi hau sortu zenetik euskal gizarteak Euzko Alderdi Jeltzalean izan duen konfiantza berritzea eta sendotzea

- **Euskal gizartearekiko harremana areagotzea**, alde batetik, orain arte loturarik izan ez den espazioekin loturak ezartzea bermatuz, eta, bestetik, EAJ-PNVren presentzia ahuldu egin den espazioak indartuz. Historikoki, EAJ-PNV gai izan da bere inguruko aniztasunaren topagune eta lotune izateko, desberdintasunak aitortuz, naturaltasun osoz; baina gaur egungo egoerak eskatzen digu ahalegin bat egitea pertsonarik eta gizatalderik gure eztabaida, proiektu eta elkarrizketetatik kanpo utziko ez dugula bermatzeko. Geure buruari are kontzientzia handiagoa eskatu behar diogu dibertsitatearen inguruan, dela jaiotzagatik, arraza- edo etnia-jatorriagatik, sexuagatik, sexu-orientazio edo -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo desgaitasunagatik. LGBTI kolektibotik hurbil jarraitu behar dugu, eta, bereziki, trans kolektibotik eta desgaitasuna duten pertsonengandik, migratzaileengandik eta arrazializatutako pertsonen elkarteetatik hurbil; EAJ-PNV alderdi anitza bada, egungo gizartearen isla fidagarria izaten saiatzen jarraitu behar dugu.
- **Herritarren interesen ordezkari hobeak izatea**. Egungo gizartearen eskaeren eta beharren ispilu izan behar da EAJ-PNV, baina litekeena da gaur egun militantzia aktiboari eusten ez dioten batzuk lan horretatik kanpo geratzea, beren ikuspegiak Alderdiaren jardueran, diskurtsoan, lan-ildoetan edo irudian islatzen ez direla sentitzen dutelako. EAJ-PNVk, eraginkortasunez entzuteaz gain, kontuan hartzen ez diren ikuspegiak integratzeko gai izan behar du, bere esentzia eta nortasunari leial izanik. Gizartearen eskaerak eta beharrak aldatzen doaz denboraren eta testuinguruaren arabera, eta, aldi berean, gizarte-aldaketaren eragile dira. EAJ-PNVk, etengabeko entzute aktiboko ariketa batean, proaktiboa izan behar du eskaera eta behar berri horiek identifikatzen, eskaera eta beharrak bere diskurtsoan sartzeko eta erantzun egokia emateko, ekimen eraginkorrak eta efizienteak abiaraziz. Ekimen horiek identifikatu eta abian jartzeko, EAJ-PNVk buru irekia izan behar du, etengabe hobetzeko jarrera argia, eta horrek, ezinbestean, alderdikideen hausnarketak eta kezkak behar bezala identifikatzea eta entzutea eskatzen du. Hori guztia beti EAJ-PNVren esentzia eta nortasunari leialtasunez eutsiz.
- **Elkarte-, enpresa- eta gizarte-mugimenduekiko harreman-ereduak egokitzea**. Gaur egun, herritarren parte-hartzea bideratuta dago arrazoi zehatzen inguruko ekintzak eta erreakzioak bultzatzen dituzten ereduetara. EAJ-PNVk modu sistematikoan ulertu behar du parte-hartze modu aldakor eta are aldakorrago hori, ez mugimendu jakin batekin lerrotatua, baizik eta kausa batekin edo batzuekin, ondoren, modu arin eta dinamikoan, babesa eta/edo lidergo-kidetasuna behar duten espazio horiek identifikatzeko. Horretarako, EAJ-PNVk konpromisoa hartu behar du gizartearen molde berri, aldagarriago eta zeharkakoagoekin, konexio- eta lankidetzaz-espazioak sortzeko. Mugimendu mota guztiak ezagutu behar ditugu, eta eredu eta balio berberak ditugun mugimenduetan parte hartu behar dugu, herri eta nazio gisa garatu nahi ditugun balio demokratikoak sendotzeko. Horri erantzuteko, EAJ-PNVk ondorengoak egin behar ditu:

- Lankidetzeta-plataformak garatzea: plataforma digitalak eta fisikoak sortzea, non erakundeek, herritarrek eta lider sektorialek proiektu komunak proposatu eta horietan lan egin ahal izango duten, politika publikoen baterako sorkuntza erraztuz.
 - Kanpainetan parte hartzea sustatzea: Herritarrek eta sektoreko adituak tokiko eta mundu mailako arazoak definitzen eta konpontzen aktiboki parte hartzera gonbidatuko dituzten kanpaina tematikoak hastea.
 - Kausen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea: Funtsezko sektoreetako herritarrek eta liderrek parte hartu duten kausen aurrerabideari jarraipena egin ahal izateko sistema bat sortzea, gardentasuna eta etengabeko konpromisoa ziurtatuz.
 - Sektorekako lantaldeak sortzea: Hezkuntza, osasuna, industria, kultura eta antzeko arloetan sektorekako lidergoek parte hartuko duten lantalde iraunkorrak ezartzea, sektore bakoitzaren esperientzia eta beharrak alderdien politikan txertatzeko.
- **Kanal anitzeko harreman sendo baterantz bira egitea:** trantsizio digitalak datuen erabilerari, biztanleriaren beharrak identifikatzeari eta dinamismoari dagokienez eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, eremu fisikoan edo analogikoan lantzen eta lan egiten den modu berean, harremanen espazio digitala okupatuz. Tresna digitalak eta entzute aktiboko aurrez aurreko topaketak konbinatzen jakin behar dugu, herritarren parte-hartzea maximizatzeko eta desinformazioari aktiboki aurre egiteko. Era berean, EAJ-PNVk mugimendu politikoaren buru izan behar du, eraginkortasunez eta irmotasunez, desinformazioari eta buloen hedapenari aurre eginez, komunikazio-eremu guztietan, elementu horiek krispazio politikoa eta gizartean haserrea sortzen baitute. Hori guztia, EAJ-PNVko pertsonen aldetik zerbitzu-bokaziori eutsiz eta borondate hori indartuz

2.2 Alderdi politiko humanista eta transbertsal gisa gure zentralitatea berreskuratzea, alderdi sozialean, ekonomian eta belaunaldien artean, euskal herriaren baitan eta euskal nortasunari dagokionez, eta, horrela, Euskadiren aurrerapenari laguntzea komunitate baketsu, anitz, erresiliente, kohesionatu, ekologista eta feminista gisa.

- **Sendotasuna eta fidagarritasuna erakustea:** iraganean, EAJ-PNVk erakutsi du bera izan dela herri, gizarte eta politika mailako krisiei ondoen erantzun diena. EAJ-PNVren lidergoari esker, gobernatu duen tokian garapen ekonomikorako aukera bihurtu du ekonomia industrialaren krisia, eta, beste eragile politiko eta sozial batzuekin batera, bakerako bidea gidatu du. Gaur egun, eta, batez ere, etorkizunari begira, gertakari geopolitiko berriek sortutako ziurgabetasuna kontuan hartuta (gerrez gain, 2024a izan da maila globalean hauteskunde gehien izan dituen urtea, eta horrek eragina izan du euskal enpresen merkataritza-harremanetan eta herritarren aldatzean), ingurumenekoak (txosten hau idazten ari ginen bitartean, DANAREN hondamendia gertatu zen Espainiako Estatuaren ekialdean), digitalak (sare sozialak eta osasun mentalarekin duten lotura, adingabeen babesa, zibersegurtasuna...), eta eraldaketa demografikoa (zahartzea).
- **EAJ-PNV herritarrengana hurbitzea,** enpatiatik, apaltasunetik eta ekintza politikoaren eta harreman sozial hurbilekin. Funtsezkoa da alderdi lagunkoi, hurbil eta garden egin gaituen zumei berriro heltzea. Berdintasun-jarrera batetik, udal-erakundeetatik entzuteko gai dena, herritarrekiko loturak indartuz eta entzundakoan oinarrituta lan eginez, beste ikuspegiak barne hartuz eta arrakasten zein akatsen berri emanez. EAJ-PNV aukera erreala da herritar guztientzat, bere HERRIAREN zerbitzura dagoen alderdia dela erakutsi behar du.

- **Gure baloreak birformulatzea eta estilo propioa sustatzea**, eta EAJ-PNV eragile ordezkatzailerik eta inklusibo gisa kokatzea, zentralitatean dagoena eta besteekin alderatuta eta barrura begira zein kanpora begira guztiz identifikagarria izango dena, lehenagoko elementuak kontuan hartuz eta EAJ-PNV estereotipotik erreferentzialtasunera eramanez. EAJ-PNVk bere aniztasuna erakusteko irudia sortzeko gai izan behar du, alderdikideen artean edozein pertsona integratuz, bere jatorria, etnia, erlijioa, sexu-egoera, genero-identitatea, prestakuntza akademikoa eta maila sozioekonomikoa edozein direla ere. Gainera, EAJ-PNVko pertsonen jarrera koherentea, elkarriketazkoa, gardena, arduratsua eta fidagarria izan behar dute barrura begira eta beren moldeetan, maila guztietan eta esku hartzen den eremu guztietan. Ekintza politikoa argi eta garbi ulertzeko molde eredugarria.
- **Euskal nortasuna babestea eta sustatzea**, ideologia koherentziatik haratago aplikatuz, euskara modu eraginkorrean eta konprometituan erabiliz eta sustatuz.

3 TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AURREKARIAK

1895ean sortu zenetik, EAJ-PNV indar politiko bat baino gehiago izan da. Alderdia mugimendu politiko bat da. Herri baten autogobernu, nortasun eta askatasun helburuak eta nahi kolektiboak ordezkatu ditu. Diktadurako urteetan zapalkuntza politiko eta kulturala tresna zuen erregimen garaian eta demokrazia eta egungo erronkak iritsi arte, EAJ-PNV izan da aldaketa sozial eta politikoak gidatzeko gai izan den erreferentea.

Diktadura frankistan, EAJ-PNVk funtsezko zeregina bete zuen euskal imajinario kolektiboa egituratzeko lanean, herrigintzara bideratuta. Erregimen frankistak errepresio bortitza egin zien penintsulako euskal lurraldeei, askatasun demokratikoak ezabatuz, buru ta alderdikide abertzaleak jazarrit, kartzeletan sartuz, erbestera derrigortuz eta nortasun elementu propioak debekekatuz, hala nola euskara edo ikurrina. Gizartearen kezka isilarazi ziren garai hartan, EAJ-PNVk euskal herritarren nahien bitarteko nagusi gisa jardun zuen (bai klandestinitatean, bai erbestean).

Alderdi politiko bat baino gehiago, historiaren gorabeheretan, EAJ-PNVren zeregina izan da aske eta independentea izan nahi duen euskal gizartearen imajinarioa azaleratzen duen mugimendu politikoa izatea, bere inguruan gizartearen asmoak batuz eta gizarteko talde eta entitate ugari konektatuz, aldi berean euskal biztanleriarekin emozionalki konektatuz. Gizarte-sare osoan zabaltzen den erakundea den aldetik, askotariko sektore sozial eta profesionaletatik datozen pertsonekin, Alderdia gai izan da Euskal Herriaren beharrak entzun, ulertu eta zeharka bideratzeko, bai eta unerik gogorrenetan ere askatasunaren aldarrikapena bizirik gordetzeko ere.

Arestian esandako horren adibide gisa aipa dezakegu Emakume Abertzale Batza (EAB). 1922an sortu eta Primo de Riveraren diktadura jasan ondoren, taldearen konpromiso irmoari esker ekimen klandestinoak sortu ziren, hauen artean Ikastolak, euskal hizkuntza eta kultura gogor zapalduta zeuden arren. Ekimen horiek euskal nortasunaren biziraupena bermatzeaz gain, oinarri sendoa ezarri zuten etorkizunera begira autogobernu-nahiarik bide emateko.

Giza-sare anitz eta konprometitua bere bizitza profesional eta pertsonalaren zati bat euskal kausaren mesedetan sakrifikatzen zegoenez, EAJ-PNVk euskal gizartearen beharrak antzeman eta belaunaldi-aldaketei aurrea hartzeko aukera izan zuen, malgutasunez erantzunez. Guztion onerako eta helburu kolektiboetarako konpromisoa zegoen, eta horri esker, EAJ-PNVk euskal gizartearen ordezkari gisa zuen

legitimitateari eutsi ahal izan zion, Trantsizioaren ondoren etorri zen marko demokratiko berrian autogobernua garatzeko oinarri sendoa ezarritz.

Demokrazia Espainiako Estatura iritsi zenean, asmo historiko horietako asko gauzatzen hasi ziren. Erakunde propioak sortzea, autogobernu-sistema sendoa egituratzea eta Estatuaren esparruan euskal berezitasuna aitortzea erabakigarriak izan ziren. Euskal administrazioa sortze horrek aurreko kultura-erresistentziaren garaian sortu ziren lorpen asko sendotzea eta instituzionalizatzea ekarri zuen, hala nola EABk abiarazitako euskarazko hezkuntza. EAJ-PNV izan zen prozesu honen ardatz nagusia, gaur egun mendebaldeko munduan deszentralizazioari dagokionez aurreratuenetakoa izaten jarraitzen duen erakunde-esparru berri hori kudeatuz eta eratuz.

Hala ere, aldi berri horrek aldaketak ere ekarri zituen gizartearen eta politikaren arteko harremanetan, demokraziaren bilakaerarekin alderdien eta herritarren arteko deskonexio mailakatur hasi baitzen, kausa kolektiboaren espiritua atzean utzita. ETaren terrorismoak eta talde armatuaren inguruko alderdi politikoek gizartean sortzen zuten arbuio handiak eta justifikaziorik gabeko minak gizartea gaiztotu zuten, eta horrek eragina izan zuen Euskadin desafekzio politikoaren fenomeno hori geroago gerta zedin. Hala ere, EAJ-PNVri ere eragin zion, mendebaldeko demokrazietako alderdi tradizionalen antz handiagoa hartzen hasi baitzen: erakundearen kudeaketan zentratuago, helburu kolektiboen mobilizazioan baino.

ETaren terrorismoaren amaieraren ondoren Euskadik bake-garaia bizi arren eta ongizate-maila handia daukagun arren, egungo une historikoaren ezaugarri nagusiak dira demokrazia liberalen krisi sistemikoa, trantsizio handiei lotutako ziurgabetasuna eta populismoen gorakada. Europako beste alderdi batzuek bezala, EAJ-PNVk erronka garrantzitsuei egin behar die aurre; besteak beste, gizartearen eraldaketaren ondorioz, euskal gizartearen nahiak biltzen zituen alderdia zena mugimendu politiko izateari utzi eta koadroen alderdi bihurtu izana. Era berean, beste erronka bat izango litzateke kudeaketa instituzionalera bideratuta dagoen alderditzat hartua izan beharrean, helburu kolektibo handien mobilizazioa eta Euskadiren lidergo ideologikoa helburu dituen alderdi gisa agertzea.

Izan ere, helburu kolektiboen mobilizazio hori erronka garrantzitsu bihurtu da, kontuan hartu beharreko hainbat elementurekin. Alde batetik, gaur egungo herritarren gero eta zati handiago batek berehalako inpaktua espero du, eta horrek erakusten du epe laburreko konponbideak irismen luzeko estrategiekin orekatzeko beharra. Alderdi politikoetan afiliatu beharrean, pertsona askok unean uneko egoerei edo arrazoi espezifikoiei lotutako mugimendu iragankorretan parte hartzea aukeratzen dute. Bestalde, EAJ-PNVren barruan garrantzi eta balio nahikorik eman ez zaien gai sistemiko batzuei ez zaie diskurtso politiko propiorik garatu, eta ekintza politikoaren funtsezko parte izan behar dute, hala nola feminismoa edo ingurumen-iraunkortasuna. Galdera horiek gaur egungo eskaerei erantzuteaz gain, funtsezko zutabeak dira herrialde erresiliente eta oparoa eraikitzeko epe luzeko erronkei heltzeko orduan.

EAJ-PNVren aburuz, errealitate honek eskatzen du proposamenak diseinatzerakoan, begirada epe luzean eta herri erresiliente eta oparoa eraikitzeko asmoan jartzea eta, aldi berean, beste lehentasun sistemiko batzuk eta unean uneko kausetatik sortutako ardurak islatzeko gai izatea. Hori lortzeko, beharrezko dugu aliantza estrategikoak ezartzea kausa horiek defendatzen dituzten mugimendu eta eragileekin. Bi norabideko komunikazio eraginkorra, entzute aktiboan eta elkarrekiko aitortzan eta errespetuan oinarritua, funtsezkoa izan daiteke kausa horiek proiektu politiko zabalago batean integratzeko, banakako kezkak helburu komun batekin lotzen dituen proiektu batean.

Testuinguru horretan, politika espazio dinamikoa eta plurala da, eta pertsona batzuek korrante desberdinetako jarrerak defendatzen dituzte, beren interesen arabera. Unean uneko eta malgutasunez parte hartzen dute kausa

espezifikoen inguruan, "nahierara egindako politika" deitu den horretan. Eraldaketa horren ondorioz, alderdi politikoek aldaketa onartu eta gizarte aldakor batetara egokitu behar dute, nortasuna eta ideologia galdu gabe, komunitatean funtsezko funtzio bat betetzen jarraitu nahi badute.

Gainera, sare sozialen erabilera eta gizartearen digitalizazioa elementu disruptibo bihurtu dira politikaren eta gizartearen arteko harremanetan. Plataforma digitalen parte-hartze politikorako bide tradizionalak ordezkatu dituzte hein handi batean, eta herritarrei gai publikoekin elkarreragiteko modu azkarragoak, indibidualizatuagoak eta puntualagoak eskaintzen dizkiete. Identitate politikoak hibridoago eta malguago bihurtu dira, eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitu dira. Sare sozialek komunitate global eta kosmopolita berriak sortzea erraztu dute, balio komunak partekatzen dituzten arren, ohiko egitura politikoetatik aldentzen direnak, hala nola alderdi politikoetatik.

Gizartearen zatiketa eta dibertsifikazio hori erronka bat da gure Alderdiarentzat; izan ere, beste eragile batzuek espazio berri horiekin konektatzen jakin eta narratiba indartzeko erabili dituzten bitartean, gure Alderdiak bere estrategia birdefinitzeko beharrari heldu behar dio, komunikazioan eta kontakizunean proaktibo izanez. Plataforma digitalak aukera paregabea dira parte-hartze politikoa suspertzeko, komunitate berriak sortzeko eta EAJ-PNVren mezua tradizionalki egitura politiko konbentzionaletatik urrun egon diren sektoreetara hurbiltzeko.

Euskal biztanleriaren parte-hartze sozial eta politikoaren paradigma-aldaketa horren jakitun izanik, tresna digitalak, bide bakarra izan ez arren, beren diskurtsoa biziberritzeko eta belaunaldi berriei konektatzeko aukera izan daitezke, kontakizun politikoarekin koherente izanik.

4 EGUNGO EGOERA

Dokumentu honen aurreko ataletan azaldu den bezala, gizartea mundu mailako iraultza batean murgilduta dago, eta horrek eraldatu ditu bizitzeko, lan egiteko, denbora kudeatzeko, sozializatzeko, harremanak izateko, bidaiatzeko, aisialdirako eta, halaber, politika egiteko eta ulertzeko moduak. Horrek eskatzen du egokitze gaitasuna, orain arte behar ez den maila batean.

Trantsizio digital, ekologiko, sozioekonomiko eta demografikoek sortu dute arriskuaren gizarte edo gizarte likido izenekin ezagutzen dena, ziurgabetasunak eta, era berean, aukera anitzek baldintzatua, eta ez dute zertan justizia, ekitate, parte-hartze sozial edo askatasun handiagoa ekarri. Horrek guztiak ziurgabetasuna sortzen du herritarrengan, eta mesfidantza eta praktika politikotik urruntzea eragiten du.

Mundu zaharra joan gabe, mundu berria ez da oraindik jaio, baina haren sorrera saihestezina da, eta, bien bitartean, globalizazioaren desorekak eta eraldaketa digitalaren deslokalizazioa eta inpaktua, trantsizio berdea, ongizate-estatuaren krisia eta munduko desberdintasuna ez dira epe laburrean konponduko. Beraz, iturri horietatik sortzen dira herritarrek politikarekiko duten desafekzioa eta mesfidantza.

Gure ideala eta helburua populismorik eta estremismorik gabeko herri aske batean bizitzea den eta izan behar den arren, Euskadi ez da polarizaziotik, krispazio politikotik edo akiduratik libratu den oasirik.

Globalizazioa, nazioarteko eraginak, deslokalizazioa, iraultza industrialak, digitalak eta ekonomikoak, trantsizio ekologikoa (nahitaez bete beharrekoa klima-aldaketaren ondorioei aurre egiteko), infodemia eta, aldi berean, albiste faltsu eta "fake news" delakoekin desinformatzeko eta ugaritzeko arriskua, ezinbesteko faktore dira gizartea oro har eta bereziki euskal gizartea ulertzeko. Fenomeno horiek guztiek irauli egin dute gure bizimodua,

bizitza pertsonala eta profesionala kudeatzeko eta harremanak izateko modua. Euskadiko politika instituzionala ere baldintzatu dute, EAJ-PNVrena barne. EAJ-PNVk ikuspegi estrategikoarekin eta lidergo irmoarekin jorratu beharko dituen fenomenoak dira horiek.

Izan ere, pertzepzio subjektiboetatik harago, datuek komunitate-sentimenduarekiko desafekzio-hipotesi hori babesten dute. Hala, Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2024ko martxoan "Euskal gizartea etorkizunaren aurrean" izenburupean plazaratutako txostenak erakusten du inkestatutako pertsonen %61 "Etorkizunean konfiantza izan behar da, azkenean gauzak ondo aterako dira" esaldiarekin ados dagoela. Azterketa horretan bertan azpimarragarria da oso portzentaje txikian agertzen zirela "Orainean sakrifikatu behar da etorkizunean hobeto bizitzea lortzeko" baieztapenarekin eta "Etorkizuna hain zalantzazkoa denez, hobe da egunean bizitzea eta orainean pentsatzea" baieztapenarekin ados ez zeudenak. Egunean bizitzeari lehentasuna ematen zaionez, pertzepzio kolektibo hori landu behar da, komunitate gisa hobetuz, indibidualtasunetik urrunduz eta sentimendu eta emozio kolektiboak sustatuz.

EAEko herritarrek pandemiak geroztik etengabeko krisi-sentsazioa adierazi dute, eta klase politikoak eta erakundeak sentipen horren erantzule egiten dituzte, sumatzen den dinamika negatiboa hausteko gaitasunik ez dutelako. Hauek dira euskal egoera eta ebaluazio sozio-politikoaren inguruan herritarrek duten pertzepzioari buruz 2024ko apirilean egindako azterlan kualitatiboaren ondorioak.

Ikuspegi sozioekonomikoan, euskotarrek bizitzaren kostuan, etxebizitza eskuratzeko zailtasunean eta lan-baldintza prekarioetan jartzen dute arreta. Eta, horren ondorioz, bizi-kalitatearen murrizketa islatzen dute.

Esparru soziopolitikoari dagokionez, euskal herritarrek klase politikoarekiko desafekzio handia erakusten dute, eta, aldi berean, Euskadin jokaleku politiko berri bat sumatzen dute. Ildo horretan, ikerketa honetan galdetutako pertsonen ertsipen-sentimenduak adierazi dituzte egungo une sozio-politikoaren inguruan, "baita desilusio-sentimenduak ere". Aurreko azterketan deskribatzen den ziurgabetasun-emozioak frustraziorantz eboluzionatu du, eta horrekin batera nazka- eta ertsipen-sentimenduak agertzen hasi dira.

Azterlan kualitatibotik ondorio bat atera daiteke, eta horrek balio digu EAJ-PNVk txosten honi buruz duen egitekoa azaltzeko; izan ere, agerian geratu da gizabanako gisa kolektibo gisa baino hobeto hautemateko joera. Horregatik landu behar da pertzepzio kolektibo hori, komunitate gisa hobetzea, indibidualtasunetik aldenduz.

Gaur egungo egoera politikoa polarizazioan oinarrituta dago, eta haustura sozial baten aurrean aurkitzen gara. Haustura horretan, sinesmenek eta emozioek gertakari objektibagarriek baino indar handiagoa dute, eta ahots moderatuak eragina galtzen ari dira, gizartearen eta klase politikoaren arteko hodi komunikatzaileek izan beharko luketen arren. Diskurtso polarizatzaileak ezartzen ditu gaiak, inposatu egiten ditu, agenda markatuz, eztabaida politiko lasaia bigarren maila batean utziz. Dezibelioen arteko borroka da. Populismoak markatutako polarizazio-prozesu hori larriagotu egin da erakunde demokratiko tradizionalak eta alderdi politiko tradizionalak XXI. mendeko erronkei erantzuteko dituzten zailtasunen ondorioz.

Eta, zein da sare sozialen zeregina fenomeno honen aurrean? Harreman-paradigma berri horrek EAJ-PNVren egiteko moduarekin zerikusirik ez duten errealitateetara garamatza: zuzentasun politikorik ezak, batez ere hizkuntzan, mezuak gero eta konplexuagoa den mundu batean sinplifikatzeak, komunikazio oso emozionalari eta pertsonen emozio intimoenei zuzendu egiten zaien mundu batean, eta egia-ostearen sofistikazioak, eta sare sozialek biralizatu eta anplifikatutako horrek guztiak, polarizazio politikoa nagusi izatea eragin dute azken bosturtekoan.

Polarizazioa indartzeaz gain, sare sozialen bidez informatzeko ohiturak erretorika oldarkorra normalizatzen lagundu du. Hala, gatazka emozionalak eta nahita eragindako desinformazioak arazo politikoaren konplexutasuna ezkutatu dute, eta sare sozialetako elkarriketak toxikotasunez gainezka egotea eragin dute.

Esandako guztia gorabehera, 2024ko martxoko Euskal Soziometroaren arabera, euskal herritarren artean politikarekiko interesak gora egiten jarraitu du: 2019an EAEn inkestatutako pertsonen %33k esan zuten politikarekiko interes handia edo nahiko handia zutela, eta 2024ko hasieran %38k esan zuten interes horri eusten ziotela. Desafekzioa gorabehera interesak behera egin ez badu ere, politika kontsumitzeko modua aldatu egin da, batez ere gazteen artean.

Sare sozialek eta plataforma digitalen politika eraldatzen dute, eta aukera paregabea eskaintzen dute herritarrekin konektatzeko, baldin eta etikoki eta eraginkortasunez erabiltzen badira. Horregatik, txosten honek komunikazio politikoaren eta digitalizazioaren alaketetan sakontzea du helburu.

Sare sozialek eta plataforma digitalen ekarri duten eraldaketaren ondorioz, politikaren hedapen mediatikoaren bilakaera bat eman da, zeinetan komunikazio-estrategia sofistikatuagoak eskatzen baitira, edukia, unea eta transmititzeko kanal egokiena aldi berean integratzeko.

Illo horretan, sare sozialek funtsezko zeregina dute komunikatzeko orduan, baina, batez ere, ekintza politikoa humanizatzeko eta emozioak transmititzeko orduan. Egungo komunikazio politikoak mezu ugari eskaintzen ditu: informazio asko, interferentziak eta protagonista politikoak. Baina, nahiz eta informazio asko izan, herritarrek ez dute gai politikoekiko arreta-denbora handitu. Komunikazio politikoak, eraginkorra izateko, mezu argiak transmititzea izan behar du ardatz, herritarren kezkekin eta nahiekin zuzenean konektatzeko. Benetako emozioak erakustea, momentua atzematea eta mezua hurbiltzea funtsezkoak dira konfiantzan oinarritutako harreman iraunkorra eraikiko badira.

Sozializazio eta komunikazio-tresna berriak esparru politiko-instituzionala zeharkatzen duten espazioak dira, non mezuak transmititzen diren dimentsio artistikoaren bidez (unea atzematea), eta irudien bidez (sare sozialek emozionaltasun handia ahalbidetzen dute) biografiara jotzen den (ingurunea, interesak eta afektua). Datozen urteetan, Hiru arlo hauetan, EAJ PNVk bereziki azpimarra jarri beharko du, izan ere, hauek izango dira etorkizuneko hautesleak gureganatzeko gakoak.

Esan liteke une honetan gaudela irudiaren bidezko komunikazio politikoaren demokratizazioaren fenomenoaren aurrean. Atal honetan funtsezko alderdiak sartzen dira, hala nola komunikazioaren sozializazioa, janzkeraren azterketa, estrategia politikoaren pertsonalizazioa eta/edo politikaren inguruan sortutako kontakizunaren arrazionaltasun eta irrazionaltasunera jotzea, besteak beste.

Digitalizazioari eta komunikazio politikoan eragina izan duten eta hura eraldatu duten beste tresna batzuei dagokienez, Adimen Artifiziala (AA) eguneko aztergaien zerrendan dago. Datu kantitate izugarriak prozesatzeko, patroiak identifikatzeko eta emaitzak aurreikusteko gaitasunak politikarako tresna boteretsu bihurtzen du AA.

Adimen artifiziala eraginkortasunez, etikoki eta segurtasunez integratzea erronka bat da berez; horregatik, tresna horren alde egin behar da. Tresna horri esker, boto-emaileei, iritzi publikoei eta joera politikoei buruzko informazio-bolumen handiak azter daitezke, bai eta estrategiak egokitzea ahalbidetzen duten patroiak eta joerak identifikatu ere, zalantzarik gabe, teknologia hori modu arduratsuan erabiltzeko printzipio etikoak eratuz. AA erabiltzeak onurak dakartzio gizarteari, baina ezin du inola ere haren osotasuna arriskuan jarri.

EAJ-PNV Euskadiko aldeketa handien buru izan da: erakunde-garapena, industria-iraultza, gizarte-eraikuntza. Gure bizitzeko, komunikatzeko, informatzeko, harremanak izateko, denbora kudeatzeko eta abarrerako modua

asko aldatzen ari den honetan, EAJ-PNVk eraldaketa handia bere gain hartu behar du, horretan parte hartu eta gidatu egin behar du. Ezin gara atzean geratu.

Gizarteak eboluzionatzen duenean, EAJ-PNV osatzen dugunok ere eboluzionatzen dugu, eta gurekin eboluzionatzen du Alderdiak. Funtsezkoa da aldaketei aurrea hartzea, horiek ulertzea eta errespetatzea, gutxietsi gabe. Horrela baino ez dugu lortuko herrikideekiko loturari eusten, haien ordezkari izaten eta herri gisa izango diren eraldaketa nagusiei erantzuna emateko eta lideratzeko prest egoten jarraitzea.

5 ESTRATEGIAK OINARRI DITUEN PRINTZPIO ETA OINARRIAK

EAJ-PNVk bere ekintza politikoa eta soziala diseinatu, garatu eta gauzatu behar du ikuspegi integral eta kolaboratibo batean, zeinak komunitatea erabaki politikoen erdigunean jarriko baitu, balore etiko argi eta eguneratuetan oinarrituta eta berrikuntza politikoa sostengatua (governantza kolaboratiboa, gardentasuna, parte-hartzea, kontuak ematea eta teknologia digitalen erabilera), aldaketa sozialei erantzuteko eragile gisa, herritarrekiko harremanetan barruaren eta itxuraren arteko koherentziari eutsiz.

5.1 Balore etikoak, argiak eta gaur egungoak

Erkidegoa eta herrigintza: EAJ-PNVk zuzenduko dituen politika eta garapen programatiko guztiak euskal nazio aske baten eraikuntzaren ikuspegitik bideratu beharko dira. EAJ-PNVk alderdi batua, koordinatua eta konpromisodun pertsonen osatua izan behar du, eta lankidetzaren eta lidergo parte-hartzailearen eta partekatua izan beharko da bere jardunaren ardatza. "Auzolanak" kontzeptu hedagarria izan behar du alderdikideengandik hasita, alderdizaleak eta EAJ-PNVren lantaldeetan parte hartuko duten pertsonak barne hartuz.

Aniztasuna eta elkarbizitza: ezberdinak aintzatestetik hasita, ikusgarri eginez eta gurera batuz, EAJ-PNVk Euskadiko aniztasuna irudikatu behar du eta edozein diskriminazio-moduren aurka egin.

Berdintasuna: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak errealitate izan behar du EAJ-PNVn, eta printzipio hori zeharka aplikatu beharko da Alderdiaren ekintza guztietan.

Nortasuna/Abertzaletasuna: Euskal nazio-nortasuna harrotasunez defendatu eta hedatzea, euskara bizitza publikoaren eta Alderdiaren esparru guztietan integratuz, gure herriaren berezko eta identifikaziozko hizkuntza gisa duen balioa azpimarratuz. Zubiak eraikitzea alderdi abertzaleen hainbat elkarterekin eta elkarrekiko ikuspegia partekatzen duten beste alderdi politiko batzuekin.

Kide izatearen harrotasuna: konplexurik gabe, garenaren, sentitzen dugunaren, militatzen dugun alderdiaren harrotasuna erakustea, lortutako lorpenen harro egotea, eta baita gure Herrian lortutako ongizateaz eta gizarte-kohesioaz ere. Nazio gisa aurrera egiten jarraitzeko konpromisoa dugu, eta oraindik hobetzeko arloak badaudela onartzeko konpromisoa. EAJ-PNVko kide izateaz harro agertzea, euskal gizartearentzat aukera zuzena izan nahi izatearen apaltasunetik.

Giza eskubideen defentsa: Munduko edozein lekutan giza eskubideen urraketaren etengabeko salaketa egitea, memoriarik gabeko Euskadi eraikitzea eragotziko duen memoria kolektiboa etengabe erabiltzea bultzatuz eta iraganetik ikasten lagunduko duen ikuspegi historikoa ezagutuz eta hedatuz.

Enpatia: gizarteko pertsona guztiak errespetatu eta haiekin enpatizatzea, beharrak islatu eta ziurgabetasunei erantzun ahal izateko.

Elkartasuna, justizia soziala eta belaunaldien artekoa: gizarte bidezkoago, kohesionatuago eta berdintasunezkoago baten alde lan egitea, egoera ahulean dauden pertsonak eta kolektiboak ulertuz eta haiekin elkartuz.

Fidagarritasuna eta segurtasuna: EAJ-PNVri betidanik aitortu izan zaio ematen duen hitza betetzea eta pragmatismoa, hitzemandakoa betetzen dugulako; segurtasun eta ziurtasun sentsazioa ematen dugu, eta horrek konfiantza ematen die herritarrei. Hitzematen dugunak errealista eta pragmatiko izan beharko du beti.

5.2 Berrikuntza politikoa

Parte-hartze esanguratsua: egungo ereduen bidetik joz, EAJ-PNVk asmo handiko zeharkako partaidetza-ereduak txertatu behar ditu bere barruko funtzionamenduan, eta partaidetza edo eragin esanguratsua duten erakundeetan sustatu, erabakiak hurbiltasunez, irekitasunez eta bikaintasunez aberastera begira. Gobernantza kolaboratiboko sistemen aldeko apustu argia eta zalantzarik gabea egin behar du, bai eta gizarte antolatuarekiko eta gizarte zibilarekiko harremana indartzearen aldekoa ere.

Gardentasuna eta kontuak ematea: politikarekiko eta erakundeekiko ematen ari den mesfidantzaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa da herritarrei eta alderdikideei kontuak ematea, modu garden, egituratu eta lasaian. Konfiantza sortzeak jarrera negatiboa aldatzea eskatzen du, bai eta erabaki eta ekintzei buruzko komunikazio ireki eta gardenaren alde egitea ere, maila pertsonalean zein kolektiboan. Lorpenei eta akatsei buruzko informazio argia, arrazoitua eta ulargarria emateak herritarrekiko harreman sendoa eraikitzen laguntzen du, elkarrekiko konfiantzan oinarritua.

Digitalizazioa: EAJ-PNVk ezin du digitalizazioa baztertu. Eraldaketa hori erdigunean jarri behar da, orain arte ez bezala, Alderdiaren errealitate politikoan, sozialean eta harreman-errealitatean. Funtsezkoa izango da etengabeko prestakuntza garatzea, tresna horiek eraginkortasunez erabili ahal izateko. Gainera, estrategia teknologikoak ezarri beharko dira herritarren parte-hartzea hobetzeko, datuak babesteko eta desinformazioari aurre egiteko.

5.3 Aldaketa sozialetara moldatzea

Fidagarritasuna eta aurea hartzen jakitea: EAJ-PNVk jarraitu behar du fidagarria dela erakusten, aurea hartzen dakiela, talde lidergoaren bidez, pertsona fidagarri eta enpatikoen bidez, begirada luzea duten pertsonen bidez.

Erresilientzia: moldatzeko gaitasuna izango duen erakundea izatea, kontrako egoerei aurre egiten jakingo duena, bai eta egungo eta etorkizuneko erronkei sendotasunez erantzuten ere. Koherentzia ideologikoa bermatu beharko du, sortuko diren desfioei aurea hartu eta erantzun eraginkorrak eman planifikazio estrategikoaren eta kolaborazioaren bidez.

Egokitzen jakitea eta koherentzia ideologikoa: malgutasuna eta gizartearen behar aldakorretara egokitzeko gaitasuna erakustea, hori ez delarik oztopo epe luzerako begiradaren bidez koherentzia ideologikoa bermatzeko, begirada estrategiko zabala, eta herri erresiliente eta oparoa eraikitzea, EAJ-PNVren ekintza politiko guztiaren ardatz gisa.

Politika humanista: politikagintza lotura emozionaletik, lidergoan eta zerbitzu-lidergoan profesionaltasuna erakutsiz, pertsonak ekintza eta erabaki bakoitzaren erdigunean jarritz. Politika hori humanismoak zeharkatu behar du, pertsonen bitartez eta pertsonentzat diseinatura eta gauzaturik, betiere kudeaketan bikaintasuna eta oinarritzko giza balioen integrazioa bermatuz. Hori da gure lan politikoa zeharkatzen duen ardatz nagusia.

Politika erakundeetatik: Neutraltasuna gainditzea eta erakundeetatik politika eraginkortasunez gidatzea, erabakiak hartzeko orduan ausartak garen bitartean kudeaketa eraginkorra bultzatuz. Funtsezkoa da iraganeko politiketan eta jarreretan egindako akatsetatik ikastea, autokritika eraikitzailea eginez. Gainera, jarrera itxuragabearen aurrean posizionamendu argia sortu behar dugu, betiere kontuan izanda nor garen eta gure erantzukizunak gauzatzean zer bultzatu nahi dugun.

5.4 Gizartearekiko harremanak eta komunikazioa

Talde-lanean eta baloreetan oinarritutako lidergoa: Talde-lidergoa sustatzea, pertsona enpatikoekin eta ikuspegi argia dutenekin, EAJ-PNV ordezkatzeko duten balio komunek konektaturik. Lidergo horrek EAJ-PNVren nazio proiektuari balioa emango dioten belaunaldi- eta kultura-aniztasuna islatzen duten pertsona erreferenteak ere batu behar ditu.

Hurbiltasuna, irekitasuna eta jarrera abegikorra EAJ-PNVren Buru Batzarren aldetik: erreferentziatzeko eragile izanik, errespetuan, mirespenean, entzutean eta elkarlanean ikaskuntzan oinarritutako harremanak sustatuko dituzten buru batzarren hurbiltasuna erakustea eta balioestea.

Bizkortasuna komunikazioan: erantzun arinak, azkarrak eta tokiko errealitatera egokituak ematea egoera sozial, ekonomiko eta politikoei buruz, mezuaren mamia egungo komunikazio-beharretara egokituz. Funtsezkoa da populismoaren aurrean komunikazio eraginkorra azpimarratzea, herritar talde bakoitzari egokitutako mezuak diseinatuz, gizarte osoa interpelaturik senti dadin.

Gertuko komunikazio emozionala: EAJ-PNVk gizartearekin duen komunikazioak serioa, arduratsua, koherentea eta zorrotza izan behar du, datuetan, gertakari objektibo eta errealetan oinarritua. Aldi berean, enpatia eta hurbiltasuna erakutsi behar ditu, eta ikuspegi humanistarekin egin behar du, alderdi emozionala barne hartuz, mezuaren mamia argia eta ulergarria izan dadin. Funtsezkoa da gizartearen "mikro" premiei erantzun dieten komunikazio-bideak ezartzea, eta, horretarako, udal-mailako edo Uri Erakundearen komunikazioa deszentralizatzea. Gainera, hizkuntza erraz, hurbil eta asertiboaren aldeko apustua egin behar da, alderdikideentzat komunikazio digitalaren eta lidergo emozionalaren arloko etengabeko prestakuntza indartuz, mezuak eraginkortasunez eta jatorritasunez bidaliz eta herritarrekin konexio eta konpromisoetako harremana eraginez.

6 EAJ-PNVK JARRAITU BEHARREKO HELBURUAK ETA JARDUERA ESTRATEGIAK ZEHAZTEA

6.1 Balore etikoak, argiak eta egungoak

Auzoetan eta udalerrietan topaketa erregularrak antolatzea lehentasunezko gaiei buruz eztabaidatzeko (etxebizitza, enplegua, ekologia edo identifikatzen ditugunak), herritarren parte-hartzea ahalbidetuz.

1. Auzolana

- 1.1. Tokiko eta elkarlaneko estrategiak txertatzea: EAJ-PNVk tokian tokikora eta testuinguru bakoitzeko errealitate espezifikoetara egokitutako estrategia eta ekimen zehatzak txertatu behar ditu, ekintza guztietan elkarlanerako eta lidergo partekaturako ereduak sustatuz. Horren barruan sartzen da inguruan dituen kolektiboak ezagutzea eta horietan parte hartzea. Funtsezkoa da herri, auzo eta hirietan talde informaletan kezka eta mobilizazioa eragiten duten gaiak identifikatzea, elkarre edo egitura egonkorretatik harago.

2. Aniztasuna eta elkarbizitza

- 2.1. Alderdiaren barruan eta Euskadi askotariko baten barruan aniztasuna sustatzea eta ikusaraztea, ikuspegi, esperientzia eta ezagutza desberdinak aintzatesteko eta balioesteko balio erantsia islatzeko mezu positiboak sortuz. Hainbat pertsona integratu behar ditugu, benetan egin ere. Funtsezkoa da aniztasun horiek berdintasunean eta askatasunean garatu ahal izateko inguruneak sortzea, askotariko profilak eta aniztasun horrek alderdiaren barruan eta, oro har, euskal gizartean ematen duen aberastasuna islatzen duten mezuak sustatuz.
- 2.2. Profiletan aniztasuna koherentziaz sustatzea.
- 2.3. Alderdiaren eta gure herriaren historiari buruzko dibulgazio-estrategia diseinatzea, kulturaren eta balioen transmisioa azpimarratuz.
- 2.4. Talentua erakartzea eta garatzea: Lehendik gure egituretan dagoen talentua garatzeko lana egitea, alderdikideak oso gertutik ezagututa, eta estrategia aktiboen bidez gizartearen eskaeretara egokitutako profil berriak erakartzea. Talentua erakartzeko estrategia aktiboak behar ditugu, baita alderdikideetatik harago ere, kanpoko ahotsei espazioak irekiz, gure ikuspegiak aberastu eta ekintza politikoa hobetzeko aukera eman diezaguten.
- 2.5. Gizartea ordezkatzeko duten zeharkako aniztasun-politikak diseinatzea eta bultzatzea, eta euskal pertsona berriak ere sartzeko estrategiak lantzea.
- 2.6. Kulturen eta belaunaldien arteko elkarriketa haiekin batera lideratzea, kultura, jatorri eta adin desberdinetako pertsonen arteko topaketa- eta eztabaida-guneak sustatuz.
- 2.7. Proiektu politikoa azaltzea eta inklusio egitea: Proiektu politikoa eta Alderdiaren historia azaltzeko programa zehatzak diseinatzea eta egitea, bereziki Alderditik kanpoko pertsonen. Proiektua pertsonengana hurbiltzea, gure politikak eta ideologia azalduz eta lantaldeetan parte-hartze aktiboak izan dezaten sustatuz. Erakarpen-estrategiak bultzatzea.
- 2.8. Sexu-, erlijio- edo arraza-orientazioagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik eman daitekeen bereizkeria-mota ororen aurka eraginkortasunez eta irmo borrokatzea, eta aukera-berdintasuna sustatzea.

3. Berdintasuna

- 3.1. Genero-ikuspegia politika guztietan txertatzen dela bermatzea eta genero-berdintasuna zeharkako balio gisa sustatzea EAJ-PNVren ekintza guztietan.
- 3.2. Elkartea, talde eta kolektibo feministekin lankidetzak aktiboa garatzea, emakumeak ahalduz bideratutako ekintza guztietan eta gizartean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna bilatzen duten politikak zehazteko lanean. Funtsezkoa da feminismoaren barruan gure jarrera ezartzea eta publiko egitea, eta gai horrekin lotutako foroetan eta esparruetan parte hartzea, genero-indarkeria gaitzesteko ekintzetatik harago.
- 3.3. Alderdiaren baitan berdintasuna sustatzea eta haren praxia bermatzea: Alderdiaren maila guztietan berdintasuneko diskurtsoa sustatzea, berdintasunetik lan egiten dela bermatuz. Ziurtatu behar dugu berdintasuna hainbat espaziotatik egiten den komunikazioan islatzen dela.
- 3.4. Ahalik dela gure baliabide eta indar guztiekin, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egitea.

4. Nortasuna

- 4.1. Euskal nortasunaren oinarri diren baloreak, kultura eta historia harrotasun eta ahalegin handiz defendatzea eta ezagutzera ematea, lan horretan EAJ-PNVren jardunari eta kontakizunari eusten zaiola bermatuz.
- 4.2. Euskararekiko konpromisoa. Alderdiak alderdi euskalduna izan behar du. Horretarako barne eta kanpo euskalduntze estrategia bat ezarriko du. Helburuak izan behar du erakunde publikoetan jardun nahi duen orok euskara trebakuntza bermatzea.
- 4.3. Ideario abertzaleak azpimarratzea, Euskal Herri batuak daukan garrantzia azpimarratuz, gaur egungo estilo argi eta hurbilarekin. Jatortasun osoz talde harrotasunarekin komunikatzea.
- 4.4. Euskararen inguruko politika publikoen garapena lehenestea eta indartzea, euskararen sustapenean egindako ekintza publikoek beharrezko berme juridikoa izan dezaten hainbat eremutan sor daitezkeen gorabeheren aurrean, eta jasaten ari diren erasoei koordinatuta eta irmotasunez aurre egiteko.
- 4.5. Euskararen erabilera sustatzea espazio guztietan (barrukoetan eta kanpokoetan).
- 4.6. Lan egitea Nafarroan eta Iparraldean euskara ofiziala izan dadila bermatzeko. Euskadi osoan euskara hizkuntza ofiziala izatea lortzea.
- 4.7. EAJ-PNVk erakundeetan dituen ordezkariak argi eta garbi eta irmotasun osoz estilo abertzale eta euskalduna islatzea bermatzea, bai erabakietan eta jardueretan, bai irudi eta komunikazioan.
- 4.8. Alderdikide, alderdizale eta interesa duten pertsonen gure ideologia eta nortasun politikoan trebatzeko prestakuntza-programak diseinatzea eta eskaintzea.

5. Kide-herrotasuna

Belaunaldi berrientzako hezkuntza programak sortzea EAJren eginkizun historiko eta gaur egungoak azaltzeko.

Lortutakoak ematen digun harrotasuna adieraztea eta komunikatzea, konplexurik gabe, behar denean kanal ugari baliatuz. Hobekuntza aukerak identifikatu eta komunikatu, barruko eta kanpoko mezuak indartuz.

- 5.1. Moldatzen jakitea eta aldaketak harrotasunez komunikatzea, segurtasunez, egoera latzetan eta gatazka politiko handiko momentuetan ere.

6. Enpatia

- 6.1. Espazioak sortzeaz gain, gizarteak berak sortutako espazioetan ere sartu behar da.
- 6.2. Politikaren hizkuntza berreskuratzea. Interes orokorraren aldeko kontakizuna sortzea, pertsonak identifikatuta senti daitezen. Ideiak eta proposamenak helaraziz, hunkitu egingo duen diskurtsoa, koherentziaz eta sen onez.
- 6.3. Erabakiak hartzerakoan eta hartutako erabakiei eta jardueri buruzko azalpenetan proaktibo izatea, objetibotasunez hitz egitea, datuak eta errealitate egiaztatuak ematea eginikoen azalpenak ematean.
- 6.4. Arreta emateko, entzuteko, indartzeko, laguntzeko eta trebatzeko trebetasunak nabarmentzea, batez ere Alderdia erakunde edo organo politikoetan ordezkatzan duten pertsonen aldetik.
- 6.5. EAJ-PNVren baloreak azpimarratzea, bereziki errespetua, miresmena, entzutea eta elkarrengandik ikastea helburu dutenak.

7. Belaunaldien arteko elkartasuna eta justizia soziala

- 7.1. Politika publiko solidarioak jorratzea, gizarte gero eta kohesionatuagoa eta bidezkoagoa sortzeko, egoera ahulean dauden pertsonen eta kolektiboen arreta berezia eskainiz.
- 7.2. Gorroto diskurtsoak asertiboki eta irmo borrokatzea, errespetuzko elkarriketa sustatuz, eta gizarte askotariko eta inklusiboen Euskadirentzako etorkizun oparorako funtsezko oinarri gisa eskaintzen duten balio erantsia azpimarratuz.

8. Fidagarritasuna eta segurtasuna:

- 8.1. Herritarrek onesten dituzten eta errealitate bihurtuko diren politika eta programa errealistak proposatzen jarraitzea, definitzen gaituzten nortasun-politiketan zein eguneroko politiketan (etxebizitza, osasuna, segurtasuna, etab.) sakontzeko.

6.2 Berrikuntza politikoa

1. Parte hartze esanguratsua

- 1.1. EAJ-PNVren ekintza politikotik eta Alderdiak gobernatzen duen guneetatik, beharrezkoa izango da parte hartzeko estrategiak diseinatzea eta herritarren ahotsak integratzeko ekimenak abiaraztea. Funtsezkoa da hurbiltasuna, irekitasuna eta bikaintasuna.
- 1.2. Parte hartzeko eta entzuteko benetako prozesuak inplementatzea, bai alderdiaren barruan, bai kanpoan. Bertikala izan beharrean, politika horizontala egitea. "Pertsonen" bidez gobernatzea, eta ez haien "gainetik", hurbiltasuna eta parte-hartzaileen balioa erraztuz. Gobernatzean pertsonen "entzunez" egitea, parte hartzeko eta entzuteko prozesuetan jasotzen ditugun proposamenen bidez, alegia.
- 1.3. Eraginkotasun osoz ikusgarritasuna ematea parte-hartze prozesu horien hasieran, garapenean, gauzatzeko orduan eta emaitzetan.

2. Lotura inklusiboa eragile sozialekin

- 2.1. Zenbait eragilerekin (herritarrekin, elkarteekin, sindikatuarekin, sektore pribatuarekin eta akademiarekin) loturak sendotzea (edo, hala badagokio, harremanak ezartzea), benetako entzute probetxugarri baten bidez, eta harremanen pertsonalizazioari garrantzi berezia emanez.
- 2.2. Estrategikoki, Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzia duten foro jakin batzuetan EAJ-PNVren parte hartzea sustatzea.
- 2.3. Harremanetarako kanalak sortzea gaur egun garrantzia hartzen ari diren agendak ordezkatzeko dituzten eragileekin, haiekin entzute aktiboari eutsiz eta epe ertain eta luzeko estrategian integratzeko, gure idearioari uko egin gabe.
- 2.4. Entzute aktiboari eutsiz eragile horiei proposamenak egitea eta proposatutakoa betetzen saiatzea, aukera dagoenean, eta ez esateko beldurrik izan gabe.
- 2.5. Erakundeen ordezkarietatik, harreman hori erraztuko duten egiturak proposatzea eta garatzea.
- 2.6. Erakarpen intelektuala eta erabakitzailea sustatzea, EAJ-PNVren proiektuari balioa gehitu diezaioketen eragile eta pertsona erreferenteekin konektatuz.
- 2.7. Tokian tokiko kideak (alderdikideak eta Uri Erakunde osoa) gizarte-dinamiketan inplikatzeko. Herri-ekitaldietan parte hartzea, gainbeheran dauden tokiko ekimenak berreskuratzea eta helburu sozialak, kulturalak eta herritarren inplikazioa dituzten jarduerak antolatzea, komunitatearentzat erreferente izan dadin, tokiko elkarteekin bitartez.
- 2.8. Herri-ekimenetan parte hartzea eta halakoak antolatzea, eta aldiriko harremanei eustea erakunde, elkarte, merkatar, eragile ekonomiko eta beste kolektibo esanguratsu batzuekin.

3. Gardentasuna eta kontu-ematea

- 3.1. Erabakiak hartzeko prozesu guztietan prozedurazko sistematika baten bidez kontu-ematea `conditio sine qua non´ izan behar da, bai EAJ-PNVren barruan, bai erakundeen barruan presente gauden espazioetan (bai agintean, bai oposizioan), are gehiago testuinguru politiko batean, non gardentasunik ezak eragindako zaratak desinformazioa eta "fake-news" delakoak eragiten dituen.

4. Digitalizazioa

Tresna digital bat eratzea, herritarrek proposamenak, kezkak eta kritikak zuzenean parteka ditzaten alderdiarekin, komunikazio gardena sustatuz bien artean.

Barne-prestakuntza, alderdiko kideak Interneteko komunikazio-trebetasunetan gaitzeko, eta, batez ere, militante gazteenak, sare sozialetan alderdiaren ahotsa izan daitezen, politika belaunaldi berriei hurbilduz.

- 4.1. Konexio digitalera begira EAJ-PNVren estrategia bat diseinatzea eta garatzea, gizartean erabiltzen diren komunikazio-tresnen ezagutza eta erabilera bermatzeko, eta alderdiaren komunikazio-estrategia berrikustea eta optimizatzea.
Era berean, funtsezkoa da sare sozialetan Alderdiarentzako estrategia global bat garatzea, zeinaren bidez profil bakoitzak jarraitu beharreko urrats batzuk ezarriko baitira, herri bakoitzaren tamaina kontuan hartuta. Gure ordezkari talde bakoitzera erraz aplikatu eta egokitze modukoa izango da, eta plataforma digital guztietan presentzia koherentea eta eraginkorra bermatu behar du.
- 4.2. Esparru digitalean politika egiteko modu berriak ulertzea eta ezartzea, adimen artifizialak ematen dituen aukerak aprobetxatuz eta kudeaketa EAJ-PNVtik eta gobernatzen duen erakundeetatik formatu dinamikoagoetara, hurbilagoetara eta bideratzaileagoetara egokituz, betiere araudia betetzen dela bermatuz.

- 4.3. Alderdiaren digitalizazioa bultzatzea, eguneroko funtzionamendurako nahiz hauteskunde-prozesuak, kanpainak eta zundaketak kudeatzeko teknologia berriak txertatuz eta erabiliz. Estrategia horri esker, alderdikideekiko eta herritarrekiko komunikazioa sendotu, barne-antolaketa optimizatu eta plataforma digitalen arteko elkarreragina indartu beharko da.
- 4.4. Digitalizazioan inbestitzea baliabide ekonomikoekin zein giza-baliabideekin, bai barne-eremuan, bai erakundeetan.
- 4.5. Alderdiaren zuzendaritza-organoetan arlo digitaleko adituak sartzea, eta kultura digitala sustatzea antolaketa-maila guztietan, gure ekintza etengabe berrikusiz eta hobetzeko aukerak hautemanez.
- 4.6. Alderdiaren barruan lantalde profesionalak osatzea, formatu eta kanal berrietara egokitzeko, Alderdiaren balio eta helburuekin koherenteak diren irizpide politikoen arabera sare sozialen eta antzeko gaien kudeaketa aditu eta profesionala bermatzeko.
- 4.7. Herritarrekiko harremana formatu digitaletara moldatzea, gizarteak berak ematen dien erabileretara egokitzuz.
- 4.8. Kultura izango da EAJ-PNVk bere nazio proiektuaren kohesio elementu gisa erabiliko duen ardatz eta oinarri nagusia.
- 4.9. Big Data erabiltzea iritzi publikoa hobeto ezagutzeko, kanpainak segmentatzeko, baliabideak optimizatzeko, politikak formulatu eta ebaluatzeko eta estrategiak egokitzeko, betiere esparru etikoa eta juridikoa kontuan hartuta.

6.3 Gizartearen aldaketetara moldatzea

1. Fidagarritasuna eta aurrea hartzen jakitea

- 1.1. Gizartearen beharrak eta kezkei aurrea hartzea eta planifikatzea, arazoak proaktibotasunez eta eraginkortasunez konpontzeko.
- 1.1. Lidergo partekatua sustatzea, talde fidagarriak eta enpatikoak eratuz, batasuna, indarra eta segurtasuna eragiteko gai izango direnak, gizartearen eta komunitatearen errealitatearekin eta arazoekin konektatuta.
- 1.1. Elkartrukerako eta ikasteko espazioak sortzea etorkizuneko egoeren eta erronken aurrean ezagutza berriak antzemateko, eskuratzeko eta eguneratzeko aztertze, eskuratzeko eta eguneratzeko.

2. Erresilientzia

- 2.1. Testuinguru eta koiuntura txarretan hartutako konponbideak gardentasunez argudiatzea, eta fidagarritasuna eta moldatzeko gaitasuna erakustea.
- 2.1. Batasun-irudia, talde-irudia eta mezu koherentea erakustea, baturaren indarra erakutsiz eta herritarrei segurtasuna emanez.
- 2.1. Batzokietan irisgarritasuna bermatzea eta erakargarri egitea, ikusteko moduan egongo diren informazio-espazio eguneratuekin. Ingurune dinamiko eta abegikor bihurtzea, topagune, ikasteko toki eta herritarren parte hartzerako gune gisa duten eginkizuna indartuz.
- 2.4. Batzokiek, duten "erakusleihoa" aprobetxatzeko euskarriak ezarri. Datuak, mezuak... Adibidez, pantaila jartzerik balego, herriko proiektuez gain tokian tokiko aldunditik, Jaurilaritzatik edo Alderditik eman ditzakegun datuak, mezuak edo proiektuak ezagutzera ematea.

3. Egokitzeko gaitasuna, Koherentzia eta Erresilientzia

- 3.1. Estrategia koherenteak diseinatzea, baina tokian tokiko errealitateetara egokitzeko modukoak. Harremanetarako ereduetan berritzeko eta esperimintatzeko espazioak sortzea.
- 3.2. Une oro, jardunean eta komunikazioan, lurralde bakoitzeko sentsibiltate espezifikoak kontuan hartzea, bereziki Iparraldean eta Nafarroan.
- 3.3. EAJ-PNVren ekitaldi eta ospakizunak diseinatzea eta eguneratzea eta ekimen eta formatu berriak planteatzea.

4. Politika humanista

- 4.1. Etika demokratikoan, gizakiaren dimentsio osoaren garapenerako balioetan eta giza-legean oinarritutako diskurtsoa, diskurtso emozionala. EAJ-PNVren ezaugarri izan diren balio humanista eta sozialetan sakontzea eta, horietan oinarrituta, enpatiatik lan egitea, herritarrekin emozionalki konektatuz, lidergoan gaitasuna eta profesionaltasuna erakutsiz, baina pertsonak eta komunitatea ekintza eta erabaki bakoitzaren erdigunean jarritz. Humanismoak zeharkaturiko politika, pertsonen bitartez eta pertsonentzat diseinatua eta gauzatua, diskurtso emozional, enpatiko eta sinesgarriarekin, arrazionalki sendoa izateaz gain.
- 4.2. Erakundeetatik eginiko politika Ardura Ikuspegiarekin egingo da, zeinak kargu publikodun izateagatik erantzukizuna izatea baitakar, hau da, konpromisoa, ardura eta helburu horrekin erantzuteko beharra. Horrek esan nahi du arazoei gaitasun formaletatik haratago aurre egin behar zaiela, haiekiko kezka agertuz, horiek konpontzeko gaitasuna izanez eta gure erantzukizuna aitortuz. Erantzukizunaren ikuspegi horrek eskatzen digu gure hauteskunde-programetan emandako hitza betetzea eta herritarren arazoei erantzutea.
- 4.3. Irudi hurbila, apala, zintzoa eta enpatikoa proiektatzea, batez ere jarreretan oinarritua eta itxurarekin, janzkerarekin eta hizkerarekin adierazia. Gure irudiak harkorra izan beharko du, ulerkorra eta kolaboratiboa, hurbila, nabarmenkeria, harrokeria, adiskidekeria edo apaltasunik ezarik gabea. Esaten duguna eta ematen dugun itxura bateragarri eginez, nahita ezartzen zaizkigun estereotipoak gainditzen laguntzen dugu, iruri eredugarri eta jatorra finkatuz.

5. Politika erakundeetatik

- 5.1. Neutraltasuna gainditzea eta erakundeetatik egiten den politika jarrera aktiboarekin egitea, erabakiak ausardiaz hartuz, lorpenak ospatuz eta akatsetatik ikasiz, autokritikarekin batera proposamenak planteatuz. EAJ-PNVren ezaugarri nabarmena izan da gauzak bestela egiteko gaitasuna duela, eta izpiritu horri eusten jarraitu behar du, bete diren helburuak identifikatuz eta hiritargoarekiko konpromisoa berretsiz.
- 5.2. Herritar guztiak ordezkatzeko dituzten hautetsi gisa agertzea, baina gure ikuspegi politikoari, abertzaletasunari, uko egin gabe.
- 5.3. Aberri mailakoa eta lurralde eta udalerrri mailako politika artikulatzea eta bateragarri egitea, politikak erakunde maila ezberdinen artean koordinatuz, tokian tokikoa aldarrikatuz politika instituzionalean hiritarregandik hurbilen dagoen esparrua den aldetik, bai eta politika orokorretik ere.

6.4 Harremanak eta komunikazioa

Esperientzia duten liderrak militante gazteekin lotzea, ezagutzak transferitzeko eta belaunaldien arteko lidergoa sustatzeko.

1. Lantaldeetan eta baloreetan oinarritutako lidergoa

- 1.1. Kide anitzeko zuzendaritzarako Prestakuntza- eta Trebatze-Plana sustatzea, talde-lidergoa lantzeko, pertsona enpatikoekin, entzute aktiborako gaitasuna izanez eta belaunaldien artean eman daitezkeen arazoak ezagutuz, komunikazio eraginkorrari eusteko gaitasuna izango dutenekin.
- 1.2. Beren belaunaldiko kideak erakartzeko gaitasuna duten lider gazteak azaleratzea, aurreko belaunaldien esperientzian eta ezagutzan oinarrituta. Belaunaldien arteko eta kalitateko liderrei bultzada ematea, haien prestakuntzan eta garapenean denbora inbertituz. Gazteen eskaerak eta kezkak aktiboki entzutea, protagonismoa emango dieten eta haien lidergoa sendotuko duten eginkizun edo zeregin arduratsuak emanez.
- 1.3. Gaitasuna, hurbiltasuna eta enpatia uztartuko dituen lidergoa sustatzea. Ziurgabetasunean ziurtasuna erakustea, lidergo lagunkoi, hurbil eta gardena sustatuz, herritarren beldurraren eta segurtasunik ezaren aurrean, beldurra eta segurtasunik eza saihesteko.
- 1.4. Gizartean erreferente izango den lidergo politikoa eta barne-lidergoa bultzatzea, zerbitzu publikoa izateko borondate garbiarekin, interes pertsonalik gabe. Esparru pribatuko liderrak erakartzea, bertokoak eta kanpokoak, proiektu estrategikoak aldi baterako edo modu iraunkorrean gidatzeko esperientzia dutenak, barne-liderren garapena bideratzeko eta ekimen eraldatzaileak bultzatzeko gaitasuna indartzeko.
- 1.5. Arazoak gatazka bihurtu aurretik konpontzea, herritarrekiko autoritatea eta konpromisoa proiektatuz. Lidergoa, hurbiltasuna eta koherentzia erakutsiz.

2. Buru Batzarren hurbiltasuna

- 2.1. Batzar eta ekitaldi politikoez gain, aldiriko beste kanal batzuk ezartzea, alderdikideekin, alderdizaleekin eta herritarrekin informazioa eta iritziak partekatzeko eta haiekin proposamen politikoak jorratzeko.
- 2.2. Batzorde sektorialak suspertzea, entzuteko eta eztabaidatzeko guneak sortzeko.
- 2.3. Batzokien funtzionaltasuna eta itxura hobetzea, topaketa atseginetarako gune bihurtzeko. Hitzaldiak, eztabaidak eta jarduerak sustatzea, eta, dagokion irizpidearen arabera, erakundetik kanpoko pertsoneri ere ireki ahal izateko. Batzokia sustatzea, gune bizi, ireki eta auzo eta udalerrietako antolaketaarako topagune gisa.
- 2.4. Alderdizaleekin, hurbilekoekin eta erreferentziazko eragileekin laguntza-sareak antolatzea, ekintza politikoari jarraipena egiteko, programak eta agiri estrategikoak egiteko, hautagaitzak osatzeko eta jarduera politikoak antolatzeko orduan beren ikuspegia eman dezaketenean. Hori guztia, EAJ-PNVren eguneroko jardunari eusten dioten alderdikideen eskubideei kalterik egin gabe.
- 2.5. Erreferentziazko pertsonekin harremanetan egotea zerrendak osatzeko edo bestelakoetarako. Ekintza politikorako lehenengo zirkulu zentrokideaosatzen dute.
- 2.6. Komunitate-sena indartzea: "Komunitatea indartzeko" ideiarekin batera, alderdikideen eta herritarren artean kideze-sentimendua indartuko duten ekintzekin lotu behar da. Kultur jarduerak, kirola, jarduera hezitzaileak harreman sendoagoak sortzeko tresna izan daitezke.

- 2.7. Batzokiak zentro abegitsu eta funtzional gisa aktibatzea. Elkarrekin estrategikoen, merkatariaren eta tokiko kolektiboen harremanak areagotzea.
- 2.8. Alderdikideekin eta alderdikide izan ez arren Alderdia begiko izan dezaketen pertsonen eta Alderdiarekin kolaboratzeko prest egon daitezkeen kultura-erakundeekin eta auzo- edo gizarte-elkarrekin laguntza- eta lankidetzaren sareak sortzea.
- 2.9. Alderdiko erreferenteak auzoetara hurbiltzea.

3. Bizkortasuna komunikazioan

- 3.1. EAJ-PNVk komunikabide publiko zein pribatuetan, konbentzional, digital eta informalean komunikazioa nola bideratzen eta kudeatzen duen hausnartzea, aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, berriz diseinatzea. Era berean, mezua komunikatzeko edo helarazteko modu berriak berrikusi eta proposatzea, EAJ-PNV eragile erabakitzailea den guneetara egokituz.
- 3.2. Mezuaren eta ekintza politikoaren muinera egokituko diren komunikazio-estrategiak diseinatzea, unean uneko komunikazio-beharretara egokituz.
- 3.3. Ente publikoak gizartearen aniztasuna islatzen duela bermatzea, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa sortzeko Legearen 3. artikuluen arabera. Tresna politiko biko ez dadin lan egitea eta hobekuntzak proposatzea, EAJ-PNVren proposamen politikoetatik bereizi gabe.
- 3.4. Alderdikideei, EAJ-PNVko organoetako kideei eta bertan lan egiten duten pertsonen komunikazio arloko prestakuntza ematea.
- 3.5. Alderdiaren eta erakundearen komunikazio-ekintzetan gure hizkuntza guztiak erabiltzen direla bermatzea, euskarari arreta berezia eskainiz. Beharrezkoa izanez gero, gure mezua zabaltzea erraztu dezaketen beste hizkuntza batzuk erabiltzea, hizkuntza inklusibori dagokionez bereziki.
- 3.6. Sare sozialen bidez komunikatzeko eta Alderdiaren barruko kanal digital guztiak antolatzearen prestakuntza espezifikoak.
- 3.7. Hizkera bizi, zuzen, inklusiboa eta egungoa garatzea, tonu instituzional zuzen eta makurrak saihestuz, eta proposamen originalak erabiliz arreta erakartzeko, bai prentsako komunikazioetan, bai herritarrekiko ekintzetan. Euskararen ahozko nahiz idatzizko erabilera zuzena bermatuz, eta beti euskararen erabilera lehenetsiz.
- 3.8. Komunikazioa berehalakotasun- eta egiazkotasun-eskakizunetara egokitzea, erabakiak sakon hartuz, baina mezua erraztuz.
- 3.9. Halaber, fake news-ak Euskal Gizartearen esparru guztietan identifikatzeko eta horiei aurre egiteko estrategiak diseinatzea, AARI (Adimen Artifiziala) jarraipen berezia eginez.
- 3.10. Komunikazioan arriskuak hartzen ikastea, tonu politikoa goratuz, erreferentzialtasuna bilatuz eta diskurtso zuzen eta diplomatikoen aldenduz.
- 3.11. Argi eta beldurrik gabe jarrera erakustea osasuna, etxebizitza, segurtasuna, hezkuntza, immigrazioa eta une bakoitzean garrantzitsuak diren beste gai batzuen inguruan, bai eta herrialdearentzat estrategikoak diren gaien inguruan ere: kultura, gizarte-politikak, ekonomia, 2030 agenda edo Ipar Euskadiren eta euskararen garapena. Gure proposamenak argudio sendoekin komunikatzea, mezu sinpleak, ulargarriak eta zuzenak erabiliz, demagogietan eta populismoetan erori gabe, demokrazia konplexuei heltzeko eta askotariko komunikazio-beharrik dituzten talde demografikoenetara egokitzeko.
- 3.12. Mezua pertsonalizatzea eta publiko objektiboa segmentatzea, mezu espezifikoak diseinatuz, komunikazioaren garrantzia eta eraginkortasuna areagotuz.

- 3.13. Komunikazio-bideak ezartzea EAJ-PNVren antolamendu-maila desberdinetan, gizartearen maila bakoitzerako (nazioa, lurraldea, udalerria...), premia desberdinak antzemateko gai izan daitezen eta haiei erantzuna emateko.

4. Komunikazio politiko emozionala

Barne komunikazio taldeari, behar besteko tresnak eta prestakuntza ematea, beren lana hobeto egin ahal izan dezaten, ekitaldi handietarako komunikazioa kanpoko enpresaren ardurapean jarri beharrean (hauteskundeak, aldizkariak, bideo edizioa,...).

- 4.1. Politikagintza da hobetu ahal den eta hobetu behar den jarduera, baina batez ere da gure sistema demokratikoan defendatu behar dugun zerbait.
- 4.2. Alderdi politikorik gabe, hautetsiak kasta hutsa izango lirateke, kontrolagaitzak izango lirateke.
- 4.3. Politikagintzan buru argitasuna da ulertzea eta entzutea, jakin dakigula sinestea baino gehiago.
- 4.4. Alderdiaren gobernantza-ereduak defendatzen du gizartearen erronkak administrazio eraginkorretik eta sektore eta eragile interesatu eta/edo kaltetuekin lankidetzan konpontzen direla.
- 4.5. Defendatzea, balioestea eta agerian uztea gizartearen erronka eta arazoei administrazio eraginkor batetik heldu behar zaiela, kaltetutako gizarte-sektoreekin edo herritarrekin lankidetzan, konponbiderik onenak lortze aldera.
- 4.6. Alderdiak bizitza sozialean duen presentzia areagotzea, pertsona ikusgarri eta ezagunekin.
- 4.7. Komunikazio politikoan emozioak txertatzea, datuen zorrotzasunari eutsiz baina enpatiatik komunikatuz
- 4.8. Kontakizun emozional bat lantzea, modu interesatuan eraikitako estereotipoek sortutako kritika negatiboen aurrean inpresio positiboak sortuko dituen. Jasotzen ditugun kritika eta erasoei azkar eta argi erantzutea, gure erantzunak besteen kritikaren irismen bera izan dezan behar diren baliabideak erabiliz.
- 4.9. Modaren ondorio zikliko hutsen mende ez erortzea, gizartearen bilakaera serio baten parte ez direlako eta EAJko alderdikideen eta barne erakundeen energia eta finantzak alferrik galtzea ekar lezaketelako.
- 4.10. Berrespen-emozioetan oinarritutako adierazpen-lidergoa proiektatzea, ondorengoak nabarmenduz: talde-identitatea (batasuna desegin gabe), helburu politikoak, lorpen konparatiboak eta Alderdiarekiko harrotasuna eta konfiantza.
- 4.11. Ilusioa eta itxaropena sortzea ekarriko duten proposamen positiboak eta mezu motibatzaileak lehenestea. Alderdia aldaketarako eragile eraikitzaile eta fidagarri gisa aurkeztea. Mezu eraikitzaileak proiektatzea, etorkizunean konfiantza sortzeko, lehiakortasun politikoa indartzeko eta harrotasun kolektiboa transmititzeko. Politika emozioa da, baita botoa ere, baina baita egiazkotasuna eta sinesgarritasuna ere.
- 4.12. Politika irudiaren bidez humanizatzea: esparru arrunta, ohikoa eta soziala argitara ateratzeak lidergoa eraikitzen laguntzen du, benetakotasuna eta sentsibiltatea bezalako balioak eskatzen dituelako.
- 4.13. Kontakizun emozionalaz gain, beharrezkoa da datuetan oinarritutako kontakizuna, objektiboa eta erraza, Euskadik EAJren historian lortutakoaren bilakaera erakusten duena, Estatuarekin eta Europako batez bestekoarekin konparatutako datuak. Datu ekonomikoak, gizarte-ongizateari buruzko datuak, etab.
- 4.14. Ikus-entzunezko kontakizun berritu bat, bideo diseinuko teknika berriein eginikoa, gazteei zuzendua, sare sozialetako plataformen bidez zabaldua.

- 4.15. Hiritarren pertzepzioak aintzat hartzea, kausak aztertuz, bai eta horiek datu objektiboekin egiaztatu ahal direnean ere.
- 4.16. Komunikazio emozionala uztartzea datuetan oinarritutako informazio objektibagarria hedatzearekin.

7 ONDORIOAK

EAJren IX. Batzar Nagusiak, EAJk bere herriari, Euskal Herriari, aurkezten dizkion helburu horiek lortzeko, jarrera politikoak, estrategiak eta ekintza politikorako proposamenak eguneratzea dakar. EAJren IX. Batzar Nagusiko ponentziak osatzen dute EAJren proiektu politikoaren definizioa eta eguneratzea. Proiektu abertzale, demokratiko eta euskalduna; humanista eta aurrerakoa, komunitate balioen, garapen ekonomikoaren eta kalitatezko enpleguaren sorreraren aldeko apustu garbia egiten duena; ingurumena zaintzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea lehentasuntzat jotzen duena, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiten duena. Azken batean, sozialki integratzailea den proiektu bat, EAJren helburu politikoa lortzeko: Euskadi askea, gizon eta emakume askez osatua.

Adierazle argiak ezarri behar ditugu aurrera egiten ari garen edo, besterik gabe, aldaketa kosmetiko hutsak egiten ari garen identifikatzeko. Uri, herrialde eta aberri batzarretan aurkeztu beharko dira hauek, arauzko urteko zuribideak aurkezterakoan.

EAJ-PNV, bere historian zehar, funtsezko eragile politikoa izan da, bai gure herriaren eraikuntza nazional eta instituzionalerako, bai Euskadiko aldarrikapen sozial, labora, politiko eta kulturalen katalizatzaile gisa. EAJ-PNV masa-mobilizatzailea izan da, imajinario kolektibo abertzalearen bultzatzailea eta gure herriaren historian funtsezko gertatzen den bizkarrezur etiko-demokratikoa.

Egungo egoeran, ETaren jarduna eta eragina desagertuta, COVID-19aren pandemiak alderdi sozial eta ekonomikoan eta buruko osasunerako ekarri zion estres eta krisi egoeratik atera garela, Euskadin gure gizarte ongizate maila ona berreskuratu dugula, datu sozio-ekonomikoak, enplegua eta abarrak hobetu direla, politikagintzan eta gizartegintzan aurrera egiteko unea da, EAJ-PNVk bere baitan eta euskal gizartearekin izan duen harreman eta parte hartze eredua berronertzeko.

Barne-hausnarketak eraman gaitu planteatzen den gai honi buruzko hipotesi batzuk aurkeztera. Alde batetik, sentitzen dugu alderdi humanista garela, gizarte-aniztasuna islatzen eta errespetatzen duena eta gizarte-kohesio handiagoa lortzeko ekimen garrantzitsuak bultzatu dituen, baina ez gure ekintzen bidez koherentziaz adierazten, ezta efemeride eta harremanetan ere. Euskal gizarteak bilakaera bat ezagutu du: harremanak izateko, mugitzeko, aisialdia eta lana kudeatzeko edo familiak osatzeko modua aldatu da. Sozializatzeko, informatzeko eta politika egiteko dugun modua eraldatu dugu. Baina gizartearen lehentasunak ere aldatu dira, eta EAJ-PNVk ez du beti jakin izan aldaketa horiek interpretatzen, batzuetan garrantzia kendu baitzaie gizartean sortu diren eskaerei.

Hala, hiru helburu ditu EAJ-PNVk, hiru erronka nagusi Euskadin zentralitatea eta lidergoa berreskuratzeko. Alde batetik, aurrera egiten jarraitu behar dugu gure herri-proiektu politikoa eraikitzeko, eta, bestetik, egokitzen jarraitu behar dugu etorriko zaizkigun gizarte-aldaketetara, humanismoaren baloreetatik eta oinarrietatik, eta kontuan hartuta XXI. mendeko euskal gizartearen eskaerak eta erronkak. Horretarako, gizartearekiko harremana areagotu beharko dugu, beren interesak hobeto ordezkatu, harreman ereduak egokitu eta arlo digitalean egin beharreko trantsizioari heldu, kanal anitzeko harreman sendorantz biratuz. Bestalde, EAJ-PNVk,

adin guztietako pertsonekin bat egiten duen alderdi humanista den aldetik, herriaren baitan duen posizioa eta euskal nortasuna berreskuratu behar ditu. Azkenik, alderdikideon ilusioa eta alderdi honen parte sentitzearen harrotasuna berreskuratu beharra dugu.

Asmo handiko helburuak dira, bai eta egingarriak ere. Euskal gizartea aldatu egin da alderdi digitalean eta sozialean. Bide horretan, alderdi gisa aurrera egiteko unea iritsi da, balio etikoetan oinarrituta, ekintza politikoan berrituz eta gizartea ordezkatzeko gai izanez. Iraganeko denborek ez dute zertan onenak izan behar, desberdinak dira, eta geldirik geratzea ezin da aukera izan. Gaurkoa ere bada trantsizio hori EAJ-PNVren baitan eta formetan aplikatzeko unea.

Balio etiko, argi eta gaur-gaurkoak egiteko modu berri bat bultzatzeko neurriak planteatzen ditugu, baloreetan oinarrituta, balore etiko, argi eta gaur egungoak, lan politikoan berrituz eta gizarte osoaren mesedetan lan egiteko gai izanez. Entzutea, errespetatzea, partekatzea eta Herri proiektua eraikitzen laguntzea izan beharko da Alderdiaren jardunaren goiburu nagusia.

Harreman-eredu berriak sustatzeko unea iritsi da, bai esparru analogikoan, bai digitalean. Bestalde, komunikazio politikoa eraldatu egin da, eta mezuak eta kanalak ere aldatu egin dira: garaiz gaude profesionalizatzeko eta esparru horretan ere aurrera egiteko, hazi eta aurrera egin ahal izateko. Gauzak horrela, ezinbestekoa da Uri Erakundearen lana defendatzea. Horretarako, Herrialde Erakundeek beharrezko ekintza-planak garatuko dituzte eta horiek gauzatzeko behar besteko giza baliabideak eta tresnak erabiliko dira.

Trantsizio politiko eta estrategiko horren barruan ekintza eta mugimendu guztiak zehaztera iritsi ez bagara ere, EAJ-PNVk, gizarte osoan presentzia duen giza kapital gisa, bere gain har dezake eta hartu behar du lidergo partekatu eta horizontala, euskal gizarteak eskatzen duenari erantzunez, dagokion zentralitate politikoari eusteko. Ebaluatu eta irauli egin behar dira politika egiteko eta gizartean harremanak izateko moldeak. Erreakzioa eman behar da. EAJ-PNVk entzute aktiboaren, koherentziaren, enpatiaren, elkartasunaren eta errespetuaren eredu izan behar du gizartean. Jarraipen-batzorde bat sortuko da. Batzorde horrek, adierazleak definituz, tarteko ebaluazio bat eta ponentziaren garapenaren azken ebaluazio bat egingo ditu, eta alderdikideei txosten honen betetze-mailaren berri emango zaio. Azkenik, premia kritiko bat ondorioztatzen dugu: gazteriarekin berriz konektatu beharra.